


BEZERO KANALAK


Gure **negozioa txikia** da, ondorioz, **online bidez** salduko ditugu produktuak. Lau bazkide garenez, dena guk egitea ezinezkoa da. Orduan, gure etorkizunerako helburuetako bat gure denda fisiko propioa izatea da. Horregatik, bitartean, irtenbide hau bilatu genuen:



Gure **herrian dagoen kirol denda** batean produktuak saltzea. Herriko denda, **Ormendi Kirolak** izena du, eta dendako langileekin hitz egin ondoren, beraiek produktu bakoitzaren salmentaren **%20arekin geratuko dira**.



Sare sozialei dagokionez, **Instagrameko** kontua dugu, non produktuen berriak argitaratuko ditugu. Oso aktiboak izango gara, jendea **gurekin gertutasuna sentitzeko**. Aipatzekoa da, saltzen hasiko garen lehenengo hilabeteen, gutxi gorabehera, deskontuak izango ditugula, jendea erosten hasteko eta gure produktuak **merkatuan harrera ona** edukitzeko.



Tik Token ere kontua izango dugu eta gazteentzat erakargarriak izaten saiatuko gara. Hori lortzeko, oso modan eta famatuak diren “influenterrekin” kontaktatuko dugu eta haiekin **kolaborazioak** egingo ditugu gure **produktuak ezagutarazteko**.